

Hizkuntzen erabileraren kale neurketa

ASTIGARRAGA | 2022



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**
Euskara biziberritzeko
ikergunea

Ikerketa-taldea:

Maialen Iñarra, Olatz Altuna, Belen Uranga, Gillen Martinez de la Hidalga,
Iker Etxarte, Manex Basabe

Soziolinguistika Klusterra
Martin Ugalde Kultur Parkea z.g.
20140 Andoain

2022

www.soziolinguistika.eus/kaleneurketak

Lizentzia: CC-BY-SA Nazioartekoa 4.0

Babeslea: Astigarragako Udala

Aurkibidea

1	SARRERA	4
2	HELBURUAK	5
3	KOKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA.....	6
4	METODOLOGIA	9
4.1	Ikerketa-teknika.....	10
4.2	Diseinua.....	12
	Joseba Barandiaran plaza eta inguruak:	12
	Foru plaza eta inguruak:	12
	Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak	12
4.3	Emaitzen adierazgarritasuna.....	14
4.4	Laginari buruz.....	15
4.4.1	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera	16
4.4.2	Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera.....	17
4.4.3	Laginaren osaketa, ibilbideen arabera	19
5	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA.....	20
5.1	Datu orokorra (2021).....	20
5.2	Bilakaera (2001 – 2021) [baldin badauka].....	21
5.3	Udalerriko inguru soziolinguistikoa.....	22
5.3.1	Aldagai soziolinguistikoak.....	24
5.3.2	Aldagai soziolinguistikoen bilakaera	29
5.4	Beste eremu geografikoetako erabilerak.....	30
5.4.1	Euskal Herria, herrialdea eta eskualdea.....	30
5.4.2	Eskualdeko beste zenbait udalerrirekin alderaketa	31
5.4.3	Behatutako udalerrien kale-erabilera hizkuntza-gaitasunaren arabera 33	
6	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, UDALERRIKO IBILBIDEETAN	34
6.1	Datu orokorrak, ibilbideetan (2021).....	34
6.2	Bilakaera (2001 – 2021)	35
7	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA	36
7.1	Hizkuntzen kale-erabilera, sexuaren arabera (2021)	36
7.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, sexuaren arabera (2006 – 2021).....	38
7.3	Hizkuntzen kale-erabilera, adinaren arabera (2021).....	39
7.4	Euskararen kale-erabilera eta euskara gaitasuna, adinaren arabera	41
7.5	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adinaren arabera (2001 – 2021).....	42
8	HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA ...	43

8.1	Hizkuntzen kale-erabilera, adin-talde berekoak elkartzean (2021)	43
8.2	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, adin-talde berekoak elkartzean (2006 – 2021).....	45
8.3	Hizkuntzen kale-erabilera, haurren presentziaren arabera (2021).....	46
8.4	Euskararen kale-erabileraren bilakaera, haurren presentziaren arabera (2006 – 2021).....	47
8.5	Hizkuntzen kale-erabilera, haurra ala nagusia hitz egiten ari den (2021) .	48
9	ONDORIOAK.....	49
10	DATU NAGUSIEN LABURPENA	51
	BIBLIOGRAFIA	52
	ERANSKINAK. IBILBIDEAK.....	54

1 SARRERA

“Hizkuntzak, komunikazio bide izateaz gain, pentsamendua egituratzea ahalbidetzen du, eta errealitatea interpretatu eta barneratzeko ezinbesteko baliabidea ere bada. Horrez gain, pertsonen gizarteratzea errazten du, eta, ondorioz, nortasunaren garapenean ere leku garrantzitsua hartzen du.” (Zarraga Azumendi 2010, 23)

Gizakiaren, gizartearen eta hizkuntzaren arteko elkar eraginaz mintzo da aurreko aipua, hizkuntzaren garapen soziala gizarte auzia baita. Horregatik, pertsonen eta taldeen arteko harremanez aritzean, edota elkarbizitzaz erabakiak hartzerakoan, hizkuntzek hartzen duten tokia zehaztea komenigarria da. Hala, hizkuntza-politika eta -plangintza egokiak abian jartzeko ezinbestekoa da errealitate soziolinguistikoa metodo zientifikoen bidez etengabe ikertzea, horrela soilik deskribatzen baita hizkuntzei dagokienez gizartearen gertatzen dena.

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketek errealitate soziolinguistikoa gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen dute, eta behar-beharrezkoak dira hizkuntzen bizindarra ebaluatzeko, erabilera baita adierazle soziolinguistikoa esanguratsuenetako bat. Neurketaren bidez, erabilerari buruzko datu enpirikoak eskuratzen dira, ikerketa-galdera nagusi honi erantzunez: “zenbat euskara erabiltzen da kalean?”

Kontuan izan behar da ikerketa honek udalerriko kaleetan zuzenean behatutako hizkuntzen erabileraren berri ematen duela, alegia, datuok ez direla aitortuak (hiztunaren autopertzepzioan oinarritutakoak), baizik eta neurtuak. Horrez gain, ez da ahaztu behar entzuten den hizkuntzen erabilera ez dela, halabeharrez, udalerriko biztanleena, udalerriko kaleetakoa baizik.

Nolanahi ere, jakina da hizkuntzen erabilera ez dela aldagai egonkorra, ezta individuala ere; alta, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute. Horregatik, ikerketa honetako erabilera-datuak interpretatzeko adierazle soziolinguistikoak, demografikoak eta soziologikoak ere aintzat hartu behar dira.

Gainera, aipatu behar da azken hamarkadetan gizarte-bizitza era esanguratsuan aldatu dela globalizazioa, digitalizazioa, eta migrazioak bezalako fenomenoak tarteko. Are nabarmenagoa izan da aldaketa COVID19aren pandemiaren eraginpean 2020. urteaz geroztik. Hala, gizarte-aldaketa handien testuinguruan, inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntzen erabileraren bilakaera arretaz aztertzea.

Txosten honetan, *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. Astigarraga, 2021 ikerketaren emaitzak aurkezten dira. Euskal Herrian egiten den neurketaren ezagutza metodologikoan eta soziolinguistikoa oinarritzen da berau, eta, eredu horri jarraiki burutu da, 2021eko udazkenean, Astigarragan egin den seigarren edizio hau.

Txostenak honako hamar atal hauek ditu. Sarreraren ostean, ikerketaren helburuak zehaztuko dira. Hirugarren atalean, testuinguruaren berri emango da kokapen gisa, hizkuntzen kale-erabileraren datuak interpretatzeko eta ulertzeko lagungarri izan

daitezkeen gako nagusiak emanez. Jarraian, ikerketaren azalpen metodologikoak eskainiko dira, ikerketaren fitxa teknikoa eta laginaren inguruko azalpenak, besteak beste; bosgarren atalean hizkuntzen erabileraren datuak eskainiko dira, udalerriko zenbait aldagai soziolinguistikoen datuekin batera; seigarren kapituluari udalerriko ibilbide desberdinetako datuak emango dira, zazpigarrenean hiztunen ezaugarrien araberakoak eta zortzigarren ataletan solas-taldearen araberakoak. Ondorioen atalean, bidenabar, datu horien gaineko irakurketa eskaini da, eta azkenik, hamargarren atalean datuon laburpena. Amaitzeko, txostenaren eranskinera datu-bilketarako diseinatutako ibilbideen mapak ere ekarri dira.

2 HELBURUAK

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, Astigarraga 2021 ikerketaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- **Astigarragako kaleetako hizkuntza-erabilerari buruz, datu enpirikoak eskuratzea.**
- **Hizkuntzen kale-erabileraren bilakaera ezagutzera ematea,** euskararen biziberritze-prozesuari begira hausnarketarako, hizkuntza-politikak erabakitzeke eta hizkuntza-plangintza diseinatzeke balio dezan.
- **Euskararen kale-erabilerari buruzko datuak aztertzea eta interpretatzea.**

Ikerketa-lan honek unean uneko baldintza sozialak eta soziolinguistikoak biltzen ditu. Alegia, erabilera aztertzeke, kaleko hiltunei erreparatzen zaie, beren adina nahiz generoa kontuan izanda. Halaber, osaera desberdinetako elkarrizketa-taldeen hizkuntza ere aztertzen da: esaterako, elkarrizketetan hurrek parte hartzen badute, nola aldatzen da hizkuntza-erabilera? Horiei guztiei buruzko gogoetak egiteke aukera ematen dute datuek.

Neurketa sei aldiz egin da Astigarragan. Erabilera-datuak lauzpabost urteko maiztasunarekin jaso izanak argazki dinamikoa eskaintzen du. Horrela, erabileraren bilakaera katebegiz katebegi jaso da, eta ondo oinarritutako interpretazioak egin daitezke. Hau da, gizartearen eraldaketaren isla ere badira txosten honetan aurkezten diren datuak.

Nolanahi ere, Covid19-aren pandemiak neurketa burutzeko baldintzak zaildu ditu; erabat inarrosi eta eraldatu dira kale-bizitza eta orain arteko harreman- eta komunikazio-ohiturak. Edizio honetako datuak ez dira aurreko edizioetako egoera berebean jaso, baina, zalantzarik gabe, gaur egungo gizartearen isla izan, badira.

3 KOKAPEN SOZIOLINGUISTIKOA

Hizkuntza-erabilera ez da egonkorra, ezta indibiduala ere. Izan ere, une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen dute hiztunek egiten duten hizkuntzen hautua. Besteak beste, ikerketaren emaitzak eskaintzen dituen erabilera-datuok interpretatzeko, ukipenean dauden hizkuntzen erabileran gailentzen diren arau sozialak oso aintzat hartu behar dira; halaber, ingurunearen adierazle soziologikoak, demografikoak eta soziolinguistikoak ere kontuan hartu behar dira, azken hamarkadetan gizarte bitzta hain modu nabarmenean aldatu eta baldintzatu dutenak, hain zuzen.

Adierazle soziologikoak

Globalizazioaren eraginez guztiz eraldatzen ari den munduan, hizkuntzen arteko harremanak, hizkuntzekiko jarrerak eta politikak, eta hizkuntza-komunitateen biziraupenerako baldintzak ez dira iragan mendean ziren parekoak. Ingurune digitalaren hedapenak, hizkuntza-teknologiaren garapenak, edota sare-sozialen fenomenoek aurrez aurrekoak ez diren harremanak indartu dituzte, eta bestelako harreman-motak (edo bideak) hauspotu dira. Errealitate berri horrek bete-betean eragiten du aztergai den hizkuntzen kaleko erabileran, esate baterako, belaunaldi gazteek gero eta denbora gehiago igarotzen baitute Interneten edota plataforma digitaletan, eta eremu digital horretan erabilera nagusi baita.

Kezka hori ez da Euskal Herrikoa bakarrik. Hainbat estatu-hizkuntza ere arduratuta agertu dira, globalizazioaren eta, batez ere, ingelesaren nagusitasunaren ondorioz, beraien hizkuntzen presentzia eta erabilera apaltzen ari baita, etengabe (Crystal 2003), (Lo Bianco 2014), (Calvet 2017). Beraz, are eta arreta handiagoarekin begiratu behar zaio fenomeno horri euskara bezalako hizkuntza minorizatuaren ikuspegitik.

Mundu globalizatu honek paradigma sozial berria ekarri du, eta are nabarmenagoa, arestian esan bezala, COVID19aren pandemiagatik; oro har, kaleko giroa eta herritarren arteko zuzeneko harremanak nabarmen aldatu baitira. Gurea bezalako gizarte elebidun desorekatuetan, are eta eragin handiagoa nabarmendu da. Esate baterako, pandemiak ekarritako itxialdian, haur eta nerabe asko eta asko euskara entzun eta praktikatu ezinik geratu dira, neurri handi batean eskola eremuak soilik eman ohi baitie haur horiei euskaraz aritzeko aukera. Gainera aisialdi antolatua ere etenda egon da denbora luzez, eta, ondorioz, eskolaz kanpoko euskarazko jarduerak ere desagertu egin dira haur askorentzat.

Adierazle demografikoak

Joera orokorra da, Euskal Herrian, azken urteetan biztanleria hazi izana, baina hazkunde hori ez da hazkunde begetatiboagatik gertatu, izan ere, euskal herritarren artean bizi-itxaropena gero eta handiagoa da eta jaiotza-kopurua heriotzena baino baxuagoa. Aldiz, biztanleriaren hazkundera azken urteetako migrazio-saldo positiboari zor zaio, hala izan ezean, biztanleriak behera egingo bai zukeen (Gaindegia 2021).

Kontuan izan behar da, era berean, fenomeno horrek berak biztanleriaren zahartze-tasa igotzea eragin duela, hau da, bizi-itxaropena handitzearekin batera, adineko

pertsonen proportzioa ere handiagoa izatea. Eta, zalantzarik gabe, horrek kaleetako giro soziala ere aldatu du.

Adierazle soziolinguistikoak

Euskararen erabilera baldintzatzen dituen aldagai garrantzizkoak euskal hiztun-kopurua (edo dentsitatea) eta hiztunen hizkuntza-ohiturak dira. Alegia, hiztunak behar dira elkarrizketak euskaraz izan daitezen, eta euskaraz hitz egiteko ohitura ere ezarria behar du izan. Nolanahi ere, euskaldunen proportzioa (edo ezagutza-indizea) eta euskararen kaleko erabilera-indizea ez dira erabat eta modu zuzenean alderagarriak. Sarritan egiten da erkaketa hori, baina bi datu horien ezberdintasunak arretaz begiratu behar dira: gogoratu behar da euskararen ezagutza, jasotzen den moduan, aitortua eta indibiduala dela, eta, aldiz, euskararen kale-erabilera behatua eta kolektiboa. Aldeak alde, halere, korrelazio handia dago bien artean, euskal hiztun-kopurua handien dagoen eremuetan jasotzen baita euskararen kale-erabilerarik altuena, eta alderantziz.

Bidenabar, euskararen gaitasunaren eta erabileraren arteko aldeak sakonago aztertze aldera, komeni da alde kuantitatiboari ez ezik, alderdi kualitatiboari ere erreparatzea. Alde betetik gogoratu behar da gaur egungo euskal hiztunaren profila ez dela orain dela 30-40 urtekoaren berdina. Orain, askoz ugariagoak dira euskara jakin bai, baina erdaraz (frantsesez edo gaztelaniaz) hobeto moldatzen diren hiztunak; ez da ahaztu behar, euskalduntze-prozesuaren eraginez, gaur egun, haur eta gazte euskaldunen artean gehiengoak bigarren hizkuntza modura duela euskara—eskolatik jaso—, orain artean ia sekula ez bezala. Pentsa daiteke hiztun horietako askok, praktikan, erdararako joera izan dezaketela, eta, ezinbestean, horrek zuzenean eragiten duela hizkuntza-hautuan eta euskararen erabileraren indizean.

“Euskaldunen erraztasuna aldatu egin da 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen eta erdal elebidunen ehunekoa nahiko antzekoa zen (% 34,6 versus % 37,8). Gaur egun, ordea, erdal elebidunen ehunekoa 18,5 puntu handiagoa da euskal elebidunena baino (% 26 versus % 44,5)”.

(Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde publikoa 2017).

Bestalde, gogoan izan behar da euskaldun (ia) guztiek dutela gaztelaniaz edo frantsesez hitz egiteko gaitasuna. Hau da, euskaldunen elkarrizketa guztiak (% 100) izan zitezkeen erdaraz. Euskaraz aritzeko goi-muga, ordea, % 100 horren oso azpitik dago, aski baita solaskide batek euskaraz ez jakitea erdaretara jotzeko. Aipatu bezala, gainera, badira erreparatu beharreko beste baldintza batzuk testuinguru sozial eleaniztunetan, ezagutzak ez baitu hizkuntzaren erabilera baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen edo eskaintzen.

Azkenik, aipatu behar da euskal hiztunek beste erabateko aldagaien eragina ere nozitzen dutela, esate baterako, harremanak eraikitze orduan ezarritako hizkuntza-ohiturak, batzuen edo besteen aurrean azaleratzen diren zenbait aurreiritzi edo ingurunean antzematen diren hizkuntza-arau sozialak. Horiek guztiek ere,

hizkuntzarekiko duten jarrerekin batera, izan dezakete eragina hiztunek egiten duten hizkuntzen hautuan.

Labur esateko, ikerketaren datuen irakurketarako komeni da arreta jartzea hizkuntzaren erabileran eragiten duten aldagaiak asko eta askotarikoak direla, alegia, izaera poliedrikoa duela; neurketa batetik bestera kale-erabileraren joerak alda daitezke, baina fenomenoaren konplexutasunak zailtzen du aldaketa hori zer faktoreren (edo faktore-konbinazioen) eraginpean gertatu den azaltzea. Ez da komeni, beraz, irakurketa datu isolatuetara edo "igo/jaitsi" kontzeptuetara mugatzea, baizik eta ikuspegi diakronikoz egitea. Emaitzen gorabehera puntualei baino, joerei erreparatu behar zaie, eta, batez ere, joera horien jarraikortasunari. Horregatik da garrantzitsua behaketak lauzpabost urteko maiztasunarekin jasotzea, horrela lortzen baita egoera estatikoetatik harago, bilakaeraren informazioa jasotzea.

4 METODOLOGIA

Hizkuntzen erabileraren kale-neurketan, hizkuntzen ahozko erabilerari buruzko datu empirikoak jasotzen dira. Kaleetan entzundako elkarrizketetatik atera da informazioa. Beraz, espazio irekietan solasean ari ziren hiztunen jarduna behatuz jaso dira Astigarragako kale-erabilerari buruzko 2021. urteko datuak.

Behaketa bidez hizkuntzen erabilera neurtzeko metodoa Euskal Herrian sortu zen XX. mendeko 80ko hamarkadan¹, eta, hogeita hamar urtetako esperientzia metatuarekin, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dago.

Metodo horrekin, Euskal Kultur Batzordeak (EKB) Euskal Herriko neurketaren lehen edizioa burutu zuen 1989an. Geroztik, beste zazpi aldiz errepikatu du neurketa Soziolinguistika Klusterrak (aurrez SEI Elkarteak)². Ondorioz, ikerketa-lan horri esker, azken 30 urteetan hizkuntzek Euskal Herriko kaleetan izan duten (ahozko) presentzia aztertu da (Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi 2022).

Sarreran esan bezala, Astigarragan eginiko neurketa hau Euskal Herriko ikerketan oinarritutakoa da. Hala, aipatutako metodoaren ezaugarri nagusiak gidan jasota badaude ere (Altuna eta Basurto 2013), ikerketa honetan izan duen aplikazio zehatza azalduko da, jarraian.

¹ Erabilera neurtzeko metodoa Siadeco Ikerketa Taldeak sortu zuen, Iñaki Larrañagaren gidaritzapean (2021ean hil zen soziolinguista aitzindaria). Garai hartan, hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak jaso ziren estreinakoz EAEn, 1981eko zentsuaren bidez; 1983. urtean, Kale Erabileraren Neurketa metodologia sortu zuten, eta Gipuzkoako udalerrri guztietan egin zituzten neurketak (Larrañaga 1986).

² 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016 eta 2021 urteetan egin dira neurketa horiek. Azken urteetako edizioak zentsu- eta errolda-urtearekin bat datoz.

4.1 IKERKETA-TEKNIKA

Esan bezala, behaketa zuzenaren bidez eskuratu dira hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Teknika horrek, ezinbestean, diskrezioa eskatu du. Hau da, hiztunak behatuak izan direla ohartu gabe jaso da hizkuntza-praktikei buruzko informazioa. Ez dute, behintzat, elkarrizketa-hizkuntza behatzen ari garenik jakin.

Behaketa Zuzena izenarekin ezagutzen dugun teknikaren helburua da gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatuan begiratzea, eta hortik ikerketarako garrantzitsua den informazioa eskuratzea. Bitartekorik gabe, hau da, zuzenean egiten den behaketa delako hartzen du teknika honek behaketa zuzena izena.

(Juaristi, 2003)

Datuak biltzeko irizpideak

Elkarrizketa izan da behaketa-unitatea: kalean dagoen pertsona bat edo gehiagoren arteko solasaldia³. Neurtzaileei zuzendutako edo neurtzaileen arteko elkarrizketak ez dira jaso. Halaber, neurraldi berean, solaskide-talde bera hizkuntza berebanean behin baino gehiagotan entzun den kasuetan, behin bakarrik jaso da praktika hori⁴.

Hain zuzen, kalean entzundako elkarrizketa horiek zein hizkuntzatan gertatu diren jaso dute neurtzaileek (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo beste hizkuntza batean)⁵. Gainera, elkarrizketa horietan parte hartu duten solaskideen ezaugarriak bildu dira, betiere behaketa zuzen bidez pertsonen egotzi diezazkiekegunak, inori ezertxo ere galdetu gabe: sexu-generoa (emakumezkoa edo gizonezkoa den⁶, alegia) eta adina (haurrak, gazteak, heldu gazteak, heldu nagusiak eta adinekoak⁷). Azkenik, behatutako elkarrizketetan, hiztun aktiboa haurra den edo ez ere jaso da.

Datuak biltzeko prozedura

Datuak *Neurgailuaren* bidez jaso dira, mugikorreko APP bidez, alegia⁸. Modu horretan, datuak modu diskretuagoan jasotzea ahalbidetu da, eta, unean une, behatu den elkarrizketa kopuruari jarraipen estua egin zaio.

³ Elkarrizketa indibidualak ere jaso egin dira (mugikorrarekin hitz egiten entzun diren hiztunak, txakurrarekin hizketan doazenak, atarietako interfonotik...).

⁴ Neurraldi horretan, solaskide-taldean aldaketak egon badira (bat joan edo bestea etorri, esaterako), praktika berri gisa jaso da. Edo, neurraldi horretan, solaskide-talde horrek hizkuntza aldatu badu, praktika berri gisa jaso da hori ere. Solaskide-talde berbera hizkuntza berebanean hizketan topatu bada, baina beste neurraldi batean, jaso egin da.


⁵ 2016. urtera arteko edizioetan, hizkuntzak hiru multzotan bereizten ziren: euskara, gaztelania/frantsesa eta beste hizkuntzak.

⁶ Solaskidea emakumezkoa edo gizonezkoa bezala sailkatzeko irakurketa soziala dugu oinarri, ez dakigu egiazki solaskidea kategoria horiekin identifikatzen den ala ez.

⁷ Hona hemen hiztunak kategoria bakoitzean sailkatzeko jarraitu diren irizpideak: haurrak (2-14 urte), gazteak (15-24 urte), heldu gazteak (25-39 urte), heldu nagusiak (40-64 urte) eta adinekoak (65 urtetik gora). 2021. urtera arteko edizioetan, lau adin-taldeetan sailkatzen ziren behatutako solaskideak. 2021eko edizioan, ordea, helduak bi multzotan sailkatu dira, errealitate soziolinguistikoaren informazio xeheagoa eskuratzeko.

⁸ 2021. urteko ediziora arte, koadernoetan biltzen zituzten erabilera-datuak neurtzaileek.

Ondorengo argazkietan ikus liteke neurtzaileek *neurgailuan* elkarrizketa bakoitzaren ezaugarriak sartzeko baliatzen dituzten pantailetakoko batzuk:



← Elkarrizketa: 1/0

Euskara

	Ema	Giz
Haurrak (2-14)	1	1
Gazteak (15-24)	0	0
Heldu-gazteak (25-44)	0	0
Heldu-nagusiak (45-64)	0	0
Adinekoak (65etik gora)	0	0

Ez / Bai

Haurrak hitz egiten?

EUSKARAZ ERE BAI GAZTELANIAZ ERE BAI

FRANTSESEZ ERE BAI

Oharrak

Neurtzaileek bikoteka bildu dituzte hizkuntzen erabilerari buruzko datuak. Hala eta guztiz ere, bi neurtzaileek Neurgailuarekin izan zitzaketan intzidentziei aurre egiteko, datuak paperean jasotzeko aukera izan dute uneoro.

Azkenik, bestelako irizpide batzuk ere eman zaizkie neurtzaileei:

- Dudazko kasuak ez jaso.
- Haur jaioberrien presentzia berari zuzenean ari ez bazaizkie ez jaso.
- Neurketa egin aurretik, ibilbidea errepasatu.

4.2 DISEINUA

Ikerketak udalerriko kaleetako hizkuntza-erabilera deskribatu nahi duenez, ikerketaren diseinuak kalean hitz egiten duen edozein pertsona potentzialki behatzeko bokazioa du. Horregatik, kaleetako baldintza desberdinak kontuan hartu behar dira erabakitzeke zenbat behaketa egin, noiz egin eta non egin.

Lehenik eta behin, behaketa zein kaletan egingo den diseinatu da. Kale jendetsuenak eta ezaugarri soziologiko desberdineko jendea neurtzeko aukera ematen dutenekin osatu dira herri bakoitzeko behaketa-ibilbideak, udaleko euskara teknikariarekin adostuta.

Udalerrri eta ibilbide horietan, neurtzaileek bi orduko neurraldiak egin dituzte. Bi orduko iraupen hori ikerketaren Euskal Herriko ediziotik finkatuta dago, eta behatzaileek behatuen aurrean diskrezioari eusteko gehieneko iraupen bezala ulertzen da ikerketa honetan. Udalerrri bakoitzean behatu beharreko elkarrizketa-kopuruaren arabera⁹ aurreikusi da Astigarragako guztizko neurraldi-kopurua.

Egutegiari eta ordutegiei dagokienez ere, bilatu da, alde batetik, pertsona asko behatu ahal izateko egun eta ordu egokiak izatea; eta bestetik, bizimodu desberdina daramaten pertsonak behatu ahal izateko aukera ematen duen ordutegi-diseinua egitea. Horrez gain, ikerketaren aurreko edizioetatik datorren diseinuarekiko jarraikortasuna bermatu da.

Horrela, *hizkuntzen erabileraren kale-neurketa* burutzeko, herri bakoitzak bere ibilbide- eta neurraldi-kopurua du, udaleko teknikariarekin adostua.

4.2.1 Ibilbideak

Astigarragako kasuan, hiru ibilbide hauek zehaztu dira:

Joseba Barandiaran plaza eta inguruak:

Kale Nagusia (64. zenbakia), Sagardo plaza, Joseba Barandiaran plaza, Pilotari kale

Foru plaza eta inguruak:

Kale Nagusia (40. zenbakia), Foru plaza, Santio zeharbidea, Kale Nagusia, Tranbia ibilbidea.

Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak

Tranbia ibilbide, Kontxa Etxeberria plaza, Erribera plaza, Aiotzategi kalea eta Izaskun kalea. Erribera kulturgunea eta Musika Eskolaren ingurua.

⁹ Emaizta fidagarriak eskuratu ahal izateko, aurrez finkatu zen Astigarragan behatu beharreko gutxieneko elkarrizketa-kopurua.

4.2.2 Neurraldiak

Ondoko koadroan zehazten da Astigarragako datu-bilketa egin den egutegia eta ordutegia, ibilbideen arabera antolatuta:

Ibilbidea	Neurraldia		Ordua	
Foru plaza eta inguruak	2021/9/26	igandea	12:00-14:00	
	2021/9/29	asteazkena	18:00-20:00	
	2021/9/30	osteguna	18:00-20:00	
	2021/10/1	larunbata	09:00-11:00	
	2021/10/16	larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00
Joseba Barandiaran plaza eta inguruak	2021/9/18	larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00
	2021/9/19	igandea	12:00-14:00	
	2021/9/22	asteazkena	18:00-20:00	
	2021/9/23	osteguna	18:00-20:00	
	2021/9/24	ostirala	09:00-11:00	
Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak	2021/9/18	larunbata	11:00-13:00	18:00-20:00
	2021/9/26	igandea	12:00-14:00	
	2021/9/29	asteazkena	18:00-20:00	
	2021/9/30	osteguna	18:00-20:00	
	2021/10/1	larunbata	09:00-11:00	
GUZTIRA 36 ORDU				
Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.				

Datu-bilketa, beraz, udazkeneko ordu-aldaketa baino lehenago burutu ahal izan zen, argi-orduei ahalik eta etekin gehien ateraz eta neurraldi guztiak antzeko baldintzetan egitea bermatuz.

Gainera, pandemiaren hasieratik kalean ibiltzeko eta harremanak izateko osasun- eta lege-baldintza irekienak indarrean zeuden epealdian burutu zen. Euskal Herrian, irailaren 17tik urriaren 30era, oro har, kutsatze-datuak baxuak ziren, ez zegoen kalean musukoaren derrigortasunik, ostalaritzan ez zegoen jendea multzokatzeko mugarik ezta ordutegi murriztapenik, ez zegoen herriz-herri mugitzeko debekurik....

Kaleetan datuak mugikorraren bidez bildu ahala, aurrez finkatutako gutxieneko solaskide-kopurua gainditzea bermatu zen eta, aldi berean, erabilera-datuak akats-tartea $\pm 3,5$ edo txikiagoa zela ziurtatu (%95eko konfiantza-mailarekin).

4.3 EMAITZEN ADIERAZGARRITASUNA

Honako hauek dira ikerketaren datu estatistiko zehatzak:

- **Unibertsoa:** Astigarragako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.
Mugikortasun handiko eremua da kalea, eta ez dago unibertso hori osatzen duten kideen zerrenda ezagutzerik. "Hala bada, ezinbestekoa da laginak erabiltzea; hau da, unibertso osoari buruzko ondorioak ateratzeko, nahitaezkoa da unibertsoaren zati bat ikertzea" (Juaristi, 2003, 65.or.).
- **Lagina:** Behatu diren **1.444 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **4.172 solaskidek** osatu dute lagina.

Akats-tartea¹⁰: **±% 1,4**koa elkarrizketen lagin osoarentzat, % 95,0ko konfiantza-mailan eta $p=0,318$ ¹¹ izanik.

Beraz, datu estatistiko sendoak jasotzen dira txostenean.

¹⁰ Erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria. Akats-tartea kalkulatzeko, bi datu erabili dira: neurketan behatutako elkarrizketa-kopurua eta udalerriko ezagutza-datuak (hiztunak eta elebidunen proportzioa). Ikus "Laginarekin kalkulurako tresna": <https://soziolinguistika.eus/eu/lagina/>
Lagin-akatsa kalkulatzeko eredu matematikoaz gehiago jakin nahi izanez gero, jo (Yurramendi eta Altuna 2009) edota (Yurramendi et al. 2013) txostenetara.

¹¹ Behatutako elkarrizketen artean euskarazko elkarrizketetan parte hartu duten solaskideek osatu duten ehunekoa.

4.4 LAGINARI BURUZ

Ikerketa honetan, Astigarragako kaleetan behatutako 4.172 solaskideak zein hizkuntzatan hitz egiten ari ziren jaso da, aurreko atalean zehaztu bezala. Metodologiaren ezaugarriak kontuan izanda, ezin da jakin behatu diren pertsona horiek Astigarragako biztanleak diren ala ez.

Nolanahi ere, udalerriko errealitatera hurbiltzeko asmoz, bertako biztanleriaren ezaugarriekin alderatuko ditugu behatutako solaskideen ezaugarriak, atal honetan. Horrela, begiratuko da ea behatutako lagina udalerriko biztanleriarekiko zer-nolako hurbilketa den, hau da, laginaren ezaugarriak astigartarren ezaugarriekin bat egiten duten, horrek lagunduko baitu emaitzen interpretazioa. Azterketa hori bi aldagai kontuan hartuta egingo da, alde batetik sexua eta, bestetik, adina.


Bestalde, datozen ataletan, Astigarragako kale-neurketen azken aurreko edizioako laginarekin ere alderatuko da 2021ekoa. Izan ere, bilakaera-datuen interpretaziorako, lagungarri da ezagutzea Astigarragako kaleetan urterik urte behatu diren solaskideen profila.

Bide batez, garrantzizkoa da kontuan izatea datu-bilketa egin den ordu-kopurua. Astigarragako kale-neurketaren aurreko edizioan 24 orduko datu-bilketa burutu zen; 2021ean, ordea, 36 ordukoa izan da. Astigarragan, dena den, ez da nabarmen aldatu behatutako solaskideen kopurua (2016ko 4.131 pertsonetatik 2021eko 4.172 lagunetara).

4.4.1 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, sexuaren arabera

Astigarragako biztanleriaren % 49,2 emakumezkoak dira, EUSTATEk emaniko 2021eko erroldako datuen arabera. Urte berean egindako hizkuntzen erabileraren neurketako laginean, emakumeen pisua zerbait handiagoa da (% 52,5). 2016an egindako ikerketaren laginean emakumezkoen eta gizonezkoen arteko banaketan desberdintasuna zertxobait txikiagoa zen: % 51,3 emakumezkoak, % 48,8 gizonezkoak 2016an egindako ikerketan.

1. Grafikoa eta taula. LAGINA ETA SEXUAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2016-2021 (%)



	Lagina 2016		Lagina 2021		Biztanleria 2021	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Emakumezkoak	2.117	51,3	2.191	52,5	3.418	49,2
Gizonezkoak	2.014	48,8	1.981	47,5	3.531	50,8
GUZTIRA	4.131	100,0	4.172	100,0	6.949	100,0


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2021

4.4.2 Laginaren eta biztanleriaren osaketa, adinaren arabera

Astigarragan eginiko 2021eko ikerketa honetako laginean pisu handiena hartu dute biztanle helduek (% 56,4), ondoren haurrek (% 26,4), jarraian adinekoek (% 9,5) eta azkenik gazteek (% 7,7).

Joera horrek bat egiten du Euskal Herriko kaleetan jasotakoarekin, izan ere, ikerketa nagusi horretan behatutako hiztunen erdia heldua izan da, eta gainerako adin-taldekoak hurrenkera horretan sailkatu dira: helduak, haurrak, adinekoak eta gazteak (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

2. Grafikoa eta taula. LAGINA ETA BIZTANLERIA ADINAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2016-2021 (%)



Adin-taldea	Lagina 2016		Lagina 2021		Biztanleria 2021	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
2-14 urte	1.128	27,3	1.104	26,5	1.208	17,4
15-24 urte	472	11,4	321	7,7	616	8,9
25-44 urte	1.988	48,1	1.344	32,2	2.120	30,5
45-64 urte			1.007	24,1		
>64 urte	543	13,1	396	9,5	919	13,2
GUZTIRA	4.131	100,0	4.172	100,0	6.949	100,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2016 eta 2021; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2021

Lagina biztanleekin alderatuz, honakoa ikus daiteke:

- **Heldu gutxiago** behatu dira kalean proportzionalki, herrian bizi direnak baino (% 56,4 lagina, % 60,5 biztanleria);
- **Adinekoen artean ere, lagina txikiagoa** da biztanlerian duten proportzioa baino (% 9,5 lagina, % 13,2 biztanleria).
- **Haur gehiago** behatu dira kalean proportzionalki, herrian bizi direnak baino (% 26,5 lagina, % 17,4 biztanleria); haurrek laginean hartzen duten pisu handi hori orokorra da Euskal Herrian ere (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Aurrez egin diren behaketa guztiek erakutsi dute oso ohikoa dela biztanleriaren eta ikerketako laginaren banaketa ez egotea erabat orekatua, bizitza-ohiturak ez baitira berdinak izaten adin-tarte guztietan.

2016ko kale-neurketako laginarekin alderatuta, azpimarragarria da helduen presentzia kaleetan handiagoa izan dela proportzionalki 2021eko neurketan (% 48,1 2016an, % 56,4 2021ean), eta txikiagoa adinekoen eta gazteen artean (adinekoen artean % 13,1 2016an, % 9,5 2021ean; gazteen artean % 11,4 2016an, % 7,7 2021ean).

4.4.3 Laginaren osaketa, ibilbideen arabera

Laginaren ibilbideen araberako banaketari dagokionez, oso ohikoa da desorekak egotea ibilbideen artean, kalean ibiltzen den jende kopurua aldatu egiten baita ibilbide batetik bestera.

Astigarragaren kasuan, 2021eko neurketan hiru ibilbide bereizi dira, eta presentzia orekatua izan da hiru ibilbideen artean. 2016ko neurketan, ordea, bi ibilbide bereizi ziren, Joseba Barandiaran plaza eta inguruak, eta Foru plaza eta inguruak; 2021ean Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak biltzen dituen ibilbidea gehitu da¹².

3. Grafikoa eta taula. LAGINAREN BILAKAERA, IBILBIDEKA. ASTIGARRAGA, 2016-2021 (%)



	Lagina 2016		Lagina 2021	
	Abs.	%	Abs.	%
Foru plaza eta inguruak	2.062	49,9	1.324	31,7
Joseba Barandiaran plaza eta inguruak	2.069	50,1	1.553	37,2
Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak			1.295	31,0
GUZTIRA	4.131	100,0	4.172	100,0

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2016 eta 2021; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2021


¹² Ibilbide berria diseinatu da azken urteetan sortu den gunen berriaren berri izateko asmoz. Ez da, beraz, orain arte neurketarik egin gunen horretan.

5 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA

5.1 DATU OROKORRA (2021)

Ikerketa-garaian, Astigarragako kaleetan topatutako 10 lagunetik 3 euskarazko elkarrizketatan ari ziren (zehazki, % 31,8). Gainerakoak gaztelaniazko (% 67,2), frantsesezko (% 0,3) eta beste hizkuntza batzuetako (% 0,7) elkarrizketetan ari ziren¹³.

4. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. DATU OROKORRA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Lagina	Erabilera %
Euskaraz	1.325	31,8
Gaztelaniaz	2.804	67,2
Frantsesez	14	0,3
Beste hizkuntzetan	29	0,7
GUZTIRA	4.172	100,0


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

¹³ Gogora ekarri behar da emaitzen adierazgarritasuna aurkeztu den atalean esan den bezala (4.3 atala), Astigarragako behaketan **±% 1,4**koa izan dela akats-tartea, eta, beraz, emaitzetan gorabeherako tarte hori kontuan hartu behar dela.

5.2 BILAKAERA (2001 – 2021) [BALDIN BADAUKA]

Astigarragako kaleetan, 2021eko neurketa udalerrri honetan egin den seigarrena da. Jarraian, azken hogei urteetan Astigarragan euskararen erabilerak izan duen bilakaera erakusten da.

5. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. ASTIGARRAGA, 2001-2021 (%)



	2001	2003	2006	2011	2016	2021
Euskaraz	28,6	44,9	36,1	30,4	38,7	31,8
Gaztelaniaz ala frantsesez	71,5	55,1	63,9	69,2	60,7	67,6
Beste hizkuntzetan	0,0	0,0	0,0	0,4	0,6	0,7
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	2.175	1.730	1.810	3.192	4.131	4.172

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Goiko grafiko eta taulan ikus daitekeenez, ia zazpi puntuko beherakada izan du euskararen erabilerak Astigarragan azken bost urteko epean (2016tik 2021era). Garrantzizkoa da hori, izan ere, aurreko bosturtekoan gertaturiko igoerari itzulia eman eta duela 10 urte (2011n) behatu zen erabilera datu ia bera jaso da neurketa honetan.

Bilakaera luzeagoa aztertuz gero, Astigarragako kale-erabileran gorabeherak nabarmentzen dira. Horien ondorioz, % 2001etik 2021era doan hogeituro urteko tartean euskararen kaleko erabilerak hiru puntuko gorakada izan du.

5.3 UDALERRIKO INGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Herriko kaleetan egiten den hizkuntzen erabilera aztertzeko eta errealitate hori hobeto ulertzeko udalerriko zenbait aldagai soziolinguistiko aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Atal honetan, kaleko erabilerarekin batera populazioarekin zuzenean loturiko hiru aldagai aztertuko dira: biztanleriaren lehen hizkuntza, etxeko erabilera eta euskaraz aritzeko gaitasuna. Hala aztertu dute Sorolla, Altuna eta Larrea egileek 2019an eginiko *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak* izeneko ikerketan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 11), eta, era berean, biztanleriaren aldagai soziolinguistiko horiek lantzen dira Euskal Jaurlaritzak argitaratzen dituen *Mapa Soziolinguistikoetan* ere (Eusko Jaurlaritzak - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020).

Beraz, honako lau aldagai hauek hartu dira aztergai: 1) EUSTATEk ematen duen udalerriko euskara-gaitasuna, hots, zenbat biztanle diren euskaldun, ia euskaldun edo erdaldun¹⁴; 2) biztanleen artean lehen hizkuntza¹⁵ euskara, erdara, euskara eta gaztelania edo beste bat dutenen ehunekoa; 3) etxeko hizkuntzen erabilera¹⁶, euskara, erdara, biak edo beste bat erabiltzen diren alegia; eta 4) ikerketa honetan jasotako hizkuntzen kaleko erabileraren datua.

Atal honen helburua da lau aldagai soziolinguistiko horiek baliatuz udalerriko inguru soziolinguistikoaren argazkia eskaintzea. Aldagai horiek, ordea, ez dira konparagarriak bere horretan, errealitate desberdinen berri ematen dutelako.

Alde batetik, hizkuntza hitz egiten jakitea norberaren ezaugarri kognitiboa da, errealitate psikologiko batutzailea, hizkuntza berriak eskura baitaitezke, lehendik ikasitako beste hizkuntza batzuen ezagutza kaltetu gabe. Erabilera, aldiz, ezaugarri kolektiboa, familiakoa edota soziala da (Vila i Moreno 2021, 26). Esan daiteke, beraz, testuinguru sozial eleaniztun batean, ezagutzak ez duela hizkuntzaren erabilera

¹⁴ Kategoria horiek euskararen jakite-mailari buruz egiten diren lau galderei erantzundakoaren arabera lortu dira: "ulertzen duzu?", "hitz egiten duzu?", "irakurtzen duzu?", eta "idazten duzu?". Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak:

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

¹⁵ Ikerketa honetan, EUSTATEk ematen duen ama-hizkuntzaren datua erabiltzen da lehen hizkuntza modura, hots, erakunde horren arabera, 3 urte bete arte ikasten den lehenengo hizkuntza. Lau aukera daude: lehen hizkuntza moduan umetan euskara bakarrik ikasi duten pertsonak, gaztelania bakarrik ikasi dutenak, euskara eta gaztelania ia aldi berean ikasi dutenak eta, azkenik, lehen hizkuntzatzat euskara eta gaztelania ez den besteren bat izan dutenak.

¹⁶ Etxean erabiltzen den hizkuntza etxean gehienetan hitz egiten den hizkuntza da. Atal honetan, lehen hizkuntzarako erantzun berberak onartzen dira: euskara, gaztelania, biak edo besteren bat (EUSTAT).

baldintzatzen, hizkuntza erabiltzeko aukera baino ez baitu sortzen (Vila i Moreno 2021, 26) edo eskaintzen (Ramallo 2020).

Kontuan hartzekoa da, bestalde, desberdintasun metodologiko nabarmenak daudela kale-erabilera, etxeko erabilera, lehen hizkuntza eta euskara-gaitasuna neurtzeko moduan. Laburbilduz, aztertzen ari garen aldagai horien arteko alderaketak oso tentuz hartu beharrekoak dira, honako arrazoi hauek tarteko:

- **Kale-erabilera behaketa bidez jasotzen da**, beraz, hizketan ari dena horretaz konturatu ere ez da egiten; **etxeko erabilera-datua**, aldiz, **inkesta bidez jasotzen da**, eta norberak ematen du bere etxean hitz egiten duen hizkuntzaren inguruko informazioa.
- **Kale-erabileran ez da ezinbestean udalerrian bizi direnen erabilera** islatzen bere horretan, kalean behaturiko elkarrizketen erabilera jasotzen baita, izan bertan erroldatutako biztanleen ala ez.
- **Kale-erabilera gertuko artekoa** izan ohi da, eta, sarritan, adinkide berekoen artean gertatzen da. Aldiz, **etxeko erabilera familia eremukoa da**, normaletan belaunaldi ezberdinen artekoa (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).

Nolanahi ere, azaldutako ñabardura horiek kontuan izanda ere, aurrez egin diren ikerketen arabera, esan daiteke honako korrelazio hauek izan, badirela:


- **Zenbat eta udalerrri euskaldunagoa izan orduan eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Baina, banaketa hori ez da lineala eta ez uniforme, eta udalerrien artean hizkuntza portaerari buruzko desberdintasunak ageri dira (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 12).
- **Lehen hizkuntza modura euskara jaso dutenen proportzioa handia den udalerrietan, gehienetan, are eta handiagoa da euskararen kale-erabilera.** Lehen hizkuntzaren proportzioak behera egin ahala, hala egiten du euskararen erabilerak (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 15).
- **Zenbat eta handiagoa izan etxeko erabilera, orduan eta handiagoa da kaleko erabilera.** Nabarmentzekoa da bestalde, kaleko erabilera etxekoa baino altuagoa dela udalerrri gehienetan. Gainera, alde hori ez da murrizten etxean euskaraz asko hitz egiten den udalerrietan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 16).
- **Ezagutza, kale-erabilera, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera:** aldagai soziolinguistikoen euskarari dagokion datuetan, balio altuenetik txikienera hurrenkera hori da ia udalerrri guztietan ohikoena (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

Beraz, azertu ditzagun Astigarragako udalerrian bildu diren aldagai soziolinguistikoen datuen arteko harremana.

5.3.1 Aldagai soziolinguistikoak

Astigarragako aldagai soziolinguistikoak aztertuz (6. grafikoa eta taula) ikus daiteke aldagai horien artean balio altuena euskara-gaitasunak duela (% 64,7), ondoren lehen hizkuntzak (% 35), jarraian kale-erabilerak (% 31,8), eta azkenik, etxeke erabilerak (% 28,2).

6. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZA-GAITASUNA, LEHEN HIZKUNTZA, ETXEKO ERABILERA ETA KALE-ERABILERA. ASTIGARRAGA, 2016-2021 (%)



	Euskara-gaitasuna (2016)	Lehen Hizkuntza (2016)	Etxeko erabilera (2016)	Kale erabilera (2021)
Euskara / Euskaldunak	64,7	35,0	28,2	31,8
la euskaldunak	16,0	-	-	-
Euskara eta gaztelania	-	9,9	18,2	-
Erdara / Erdaldunak	19,3	55,2	53,6	68,2
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	1000,0
GUZTIRA, Abs.	5.789	5.789	5.789	4.172

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2016 eta 2021; EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2016.

Euskara-gaitasunari dagokionean, ikus daiteke Astigarragako biztanleen artean ia bi herenak direla euskaldunak, zehazki, % 64,7; beste % 16k euskara ulertzen dute. Beraz, hamar biztanletatik zortzi dira euskaraz hitz egiteko -edo gutxienik ulertzeko-gai.

Gaitasun hori kontuan izanda, VI. Mapa Soziolinguistikoak **3. gune soziolinguistikoan** kokatzen du Astigarraga (% 50-80 udal-gaitasuna) (Eusko

Jaurilaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020, 39)¹⁷. Mapa horrek ondoren zehazten den informazioa eskaintzen du 3. gune hori ezaugarritzeko:

“Hirugarren gune soziolinguistikoko udalerrietan 496.134 pertsona bizi dira, EAEko biztanleria osoaren laurdena (% 24,1). Horietatik 316.976 dira euskaldunak (% 63,8), hau da, euskaldun guztien herena baino gehiago (% 37,5). Bizkaiko eta Gipuzkoako 90 udalerritan daude hirugarren gune soziolinguistikoan. 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak dira, Durango, Zarautz, Arrasate eta Eibar izan ezik. Industria indartsua duten udalerriak dira horietako asko, tamaina ertainekoak eta komunikazio-ardatz nagusietan kokatuak.”

(Eusko Jaurilaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020, 41).

Testuinguru horretan kokatzen da Astigarraga, hau da, 6.949 biztanleko udalerria da, industria-sare aktiboarekin, sasoiko turismoaren eraginpean, eta Donostiaren komunikazio-bidean.

Udalerriko **euskara-gaitasunaren** eta **lehen hizkuntzaren artean** aldea izatea ohikoa da, alde horretan islatzen baita euskarak izan duen irabazia azken 30-40 urte inguruan, hezkuntza-sistemaren eta helduen ikasketa-prozesuen bitartez. Astigarragan ere, biztanleriaren % 64,7k euskalduna da eta horietatik % 44,9ak lehen hizkuntza modura jaso du euskara (euskara edo euskara eta gaztelania batera); azpimarragarria da, beraz, bertako biztanleriaren parte oso esanguratsua (% 19,8) euskara bigarren hizkuntza modura ikasi duela, eta, beraz, euskararen ezagutzaren aldeko irabaziak direla. Era berean, **gaitasuna** eta **etxeko erabileraren** artean ere aldea izatea oso ohikoa da, izan ere, arestian esan bezala, etxeetan belaunaldi desberdinetako kideak elkartzen dira. Sarri asko, kide horiek euskara-gaitasun desberdina dute, edota horietako batzuk gaztelaniaz euskaraz baino errazago hitz egiten dute, eta, beraz, etxe askotan ez dira betetzen euskararen erabileran bereziki eragiten duten faktoreak: harreman-sarea eta erraztasuna (Aizpurua Espin 2018, 44).

Lehen hizkuntzaren eta **etxeko erabileraren** datuek gertutasun handiagoa izan ohi dute; Astigarragan, lehen hizkuntza euskara edo euskara eta gaztelania dutenek biztanleriaren % 44,9a osatzen dute eta etxeko erabileran euskara edo biak erabiltzen dituztenak % 46,4 dira. Hau da, esan daiteke, etxeko kideen artean, zenbat eta gehiago izan euskara lehen hizkuntza modura dutenak orduan eta erabilera handiagoa izango dela etxeko giroan. Harreman hurbileko hori,

¹⁷ Herriko ezagutza-datuak ez ezik, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren emaitza enpirikoetan oinarrituz, “Euskarak gaztelaniaz bezainbesteko presentzia (EG)” duen udalerrien multzoan kokatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 24). Multzo soziolinguistiko hori 2016ko Inkesta Soziolinguistikoko eta 2017-2018 urte bitartean egindako udal neurketen emaitzak aintzat hartuz osatu zen, “Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak. Udalerririk mailako analisia. Laburpena eta ondorioak” izeneko txostenean (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019).

Nolanahi ere, azpimarratu behar da multzo horretako udalerrien batezbestekoetatik gorakoak direla Astigarragako hizkuntza-gaitasunaren, lehen hizkuntzaren, etxeko erabileraren eta kale-erabileraren datuak (3.taula - Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

Astigarragan bezala, ia udalerrri guztietan gertatzen da (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 19).

Matematikoki espero daitekeen euskararen erabileraz, erabilera isotropikoaz

Arestian zehazturiko lau aldagai soziolinguistikoez gain, bada kaleko erabilera ulertzeko interesgarri izan daitekeen bosgarren bat ere, hain zuzen, J.L. Alvarez Enparantza Txillardegiren eredu matematikoan (2001) oinarritutako erabilera isotropikoa. Datu horrek, elebitasun sozialeko eremutan, bi hizkuntzen ezagutza unibertsala ez denean, biztanleek duten hizkuntzak erabiltzeko aukera azaltzeko balio du. Hau da, eredu horren bitartez, egoera hipotetiko eta gune jakin batean, matematikoki espero daitekeen euskararen erabilera kalkula daiteke, eremu horretako elebidun dentsitatea kontuan izanda, euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz egingo dutela planteatuta (euskararekiko leialtasun erabatekoa dutelakoan) eta hizketaldian parte hartzen duten balizko taldeen pisua aurreikusita.

Eredu hori aintzat hartuta, eta egoera hipotetiko hori udalerrriaren kasura egokituta, Astigarragako udalerriko *erabilera isotropikoaren* kalkulua berritu da ikerketa honetan¹⁸, euskal hiztunen hizkuntza-hautua, neurri batean behintzat, ulertzen lagun dezakeelakoan.

Kalkuluak eginda, hortaz, % 34,3koa da baldintza hipotetiko horietan Astigarragako euskararen erabilera isotropikoa (edo espero daitekeen erabilera), kontuan izanik udalerriko biztanleen euskaldunen ehunekoa % 64,7koa dela. Beraz, behatutako erabilera erreala (% 31,8) matematikoki espero daitekeen erabilera baino zertxobait baxuagoa da.

Alabaina, badira datu hipotetiko horretatik kale-erabileraren datu erreala beherantz aldentzeko arrazoiak, besteen artean, honako hauek: alde batetik, kaleko harreman sozialak zorizkoak ez izatea nagusiki. Hortaz, gerta daiteke harreman horietan aurrez ezarritako hizkuntza-erabileraren ohituretan hizkuntza bat edo bestea gailentzea. Beste alde batetik, kontuan izan behar da euskaldunek euskaldunekin elkartzerakoan beti euskaraz egitea (% 100eko leialtasuna) ia ezinezkoa dela, sarri, solaskideen inguruko informazioa ez-nahikoa delako, (Iriberry eta Uriarte 2012, 201)¹⁹, euskaraz egiteko erosotasunik ez dutelako edo euskaraz aritzeko sarerik edo konfiantzazko giro nahikorik ez dutelako (Amorrortu, Goirigolzarri, eta Ortega 2021, 24).

Beraz, laburbiltzeko, esan daiteke udalerriko euskararen ezagutza-datua kalean egiten den erabileraren iragarle ona izan daitekeen arren (udalerrian zenbat eta euskaradun gehiago izan orduan eta euskararen erabilera handiagoa espero daiteke), beste aldagai batzuk ere aintzat hartu behar direla, ezinbestez, hizkuntzen erabileraren konplexutasuna ulertzeko. Gainera, baldintza soziolinguistikoetara

¹⁸ Eragiketa matematiko zehatza honako formula honen bitartez osatzen da: $PB = mB (w2ex2 + w3ex3 + w4ex4)$, non: PB = euskararen erabilera-maila; W2 = bikoteen pisua., W3 = hirukoteen pisua, w4 = laukoteen pisua; mB = euskararekiko leialtasuna, ex = elebidunen proportzioa.

Gaian sakontzeko, ikus (Alvarez Enparantza, Txillardegi 2001) eta (Isasi eta Iriarte 1998).

¹⁹ Besteak beste, gogora daiteke Euskaraldiaren ariketa sozialaren gakoetako bat dela txaparen erabilera. Hau da, txaparen bidez, solaskideak euskara ulertzen duela jakin daiteke, eta hori ezagutzea faktore erraztailea da hiztunarentzat, euskara erabil dezan.

mugatu gabe, faktore sozioekonomikoak eta soziodemografikoak ere adierazgarriak izan daitezke (nahiz eta azterketa honetan ezin ditugun nahi bezala kontuan izan).

MUGIMENDU MIGRATZAILEEN ERAGINA

Hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetan lurraldeko aldagai demografikoek duten garrantzia txosten honetan nabarmendu da, esate baterako, euskaraz hitz egiten duten biztanleriaren sexuaren, adinaren²⁰ edo migrazioen²¹ garrantziaz jabetzeko. Azken aldagai horrek (migrazio-fenomenoak) herriko kaleetan duen eragina kontuan izatekoa da dagoeneko gaur egungo datuak aztertzeko; zalantzarik gabe, are eta hurbilagoetik begiratu beharko dira aurrerantzean, aurreikus daitekeen migrazio-fenomenoaren goranzko joera baieztatzen bada.

Esate baterako, gogoratu behar dira iragan hurbileko honako bi fenomeno nagusiak: euskararen lurraldean XX. mendean Estatu Espainiarretik Euskal Herrira heldutako migrazioaren eragina (Ruiz Olabuenaga eta Blanco 1994) eta, berriki, XXI. mendearen hasierarekin batera, jatorri atzerritarreko immigrazioa. Azken fenomeno horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan % 11,7koa da biztanleria horren dentsitatea (Aierdi, Uranga, eta Iñarra 2021, 14)²², eta aurreikusi daiteke 100etik gora hizkuntzek dutela presentzia gure artean, biztanle horien jatorrizko estatuan hitz egiten diren hizkuntzak identifikatuta²³.

Aipatu behar da herriko kaleetan hizkuntza horien presentzia apala dela, oro har, gaur, gaurkoz: Euskal Herrian, beste hizkuntzen erabilera 2,8koa izan da²⁴, duela bost urte behatu zenaren pare (% 2,7 2016an % 2,8 2021ean). Astigarragan, 2021eko datuen arabera, jatorri atzerritarreko biztanleria % 7,3 da²⁵, eta euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren beste hizkuntzen erabilera % 0,7koa izan da (2016ko datua: % 0,6), oso presentzia txikia, beraz. Dirudenez, horren arrazoia izan daiteke aloglotoen (ez euskara ez gaztelania) migrazioak kaleko elkar eraginetan presentzia txikia izatea (oraingoz). Berez, ez gaztelania ez euskara hitz egiteak ez luke halako baldintza esturik jarri beharko bertako hizkuntza aukeratzerakoan

²⁰ Ikus, adinari dagokionean, besteak beste, UNESCOk haurrenganako hizkuntzaren transmisioari ematen dion garrantzia hizkuntza zaurgarri modura sailkatzeko irizpideetan (Moseley 2010).

²¹ Bizindar etnolinguistikoaren teoriaren baitan ere migrazioen datuen garrantzia esplizituki identifikatzen da (Giles et al. 1977).

²² Ikerketa horretan, jatorri atzerritarreko biztanleria honako hiru talde hauek osatzen dute: Estatu espainiarrean jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak, atzerrian jaio eta atzerriko nazionalitatea dutenak eta atzerrian jaio eta nazionalitate espainiarra dutenak.

²³ Soziolinguistika Klusterraren hizkuntzen mapak hipotesi horien arabera egin dira: hizkuntza ofizialak zein diren, hizkuntza hedatuak eta hizkuntza minorizatuak. Ikus <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/gipuzkoako-hizkuntza-aniztasunaren-mapa/>. Soziolinguistika Klusterrak orain arte egindako ikerketek Euskal Autonomia Erkidegoko datuak aztertuz egin dira, oraingoz. Nafarroako eta Iparraldeko daturik ez du azertu orain arte.

²⁴ Nolanahi ere, identifikatu diren joera nagusiak gogoratzea komeni da, udalerrri bakoitzak bere berezitasunak dituela jakin arren: Aierdi, Uranga eta Iñarra 2021 lanean ikus daitezke jatorri atzerritarreko biztanleriaren azterketaren ondorioz hipotesi mailan aurreikusitako hizkuntza-aniztasunaren inguruko zehaztasunak. Ikus: Gipuzkoako hizkuntzen mapa: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/hizkuntzaberdintasuna/gipuzkoakohizkuntzak/hizkuntzen-mapak>

²⁵ Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia: Jatorriko herrialde nagusien arabera. https://ikuspegi.eus/eus/estadisticas/estadisticas_tablas.php


(hizkuntza ofizial biak arrotzak baitzaizkie), ez bada nagusitasun edo erabilgarritasun irizpideen ondorioz.

Beraz, komunitateen arteko konfluentzia gertatu ahala, ikusi beharko da zer bilakaera hartzen duen euskararen erabilerak. Alde batetik migratzaileen ia erdiak jatorrian gaztelaniako hiztunak izatea garrantzia izan dezake; eta, bestalde, migratzaileen begietara euskara interesgarria izan arren, gaztelaniaren ondoan beharrezkoa ez izateak ere bere pisua izan dezake (Uranga eta Aierdi 2021, 35). Hor bada, noski, kohesio sozialari begirako erronka, eta bada, era berean, kohesio linguistikoari begirakoa ere; etorkizunari begira, lanerako alor garrantzitsua, zalantzarik gabe (Sorolla et al, 2019: 41).

Udalerriko aldagai soziolinguistikoaren azterketa honi amaiera emateko aipamen labur bat egin nahi diogu udalerriko kaleetan islatzen den biztanleen mugikortasunari. Alegia, udalerrien arteko mugimenduek ere gero eta arreta handiagoa eskatzen ari dira, batez ere, udalerrri euskaldunetan (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 39). Gainerako udalerrietan ere, esanguratsuak izan daitezke jardueraren arabera udalerrien arteko mugimenduek, bertan erroldatuak ez diren biztanleen hizkuntzaren eragina kaleetan islatzen baita. Astigarragako kasuan, aipatu behar da bere hurbiltasun geografikoa dela-eta, Donostiaren eraginaren pean kokatzen dela, eta ezaugarri horrek euskararen hizkuntzen erabileran ere eragina izan dezakeela (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 30). Horri erantsi behar zaio, jakina, udalerriko kaleetan turismoak eragin dezakeen alterazioa.

5.3.2 Aldagai soziolinguistikoen bilakaera

7. Grafikoa eta taula. EUSKARA-GAITASUNAREN, LEHEN HIZKUNTZAREN, ETXEKO EUSKARAREN ERABILERAREN ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. ASTIGARRAGA, 1991-2021 (%)



	1991	1996	2001	2003	2006	2011	2016	2021
Hiztun euskaldunak	58,5	63,2	59,2	-	59,0	59,8	64,7	-
Lehen Hizkuntza - Euskara	52,4	54,1	48,1	-	44,2	39,8	35,0	-
Etxeko Hizkuntza - Euskara	41,9	44,1	37,0	-	32,7	31,3	28,2	-
Kale-erabilera - Euskara	-	-	28,6	44,9	36,1	30,4	38,7	31,8

Iturria. EUSTAT, 2016; Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ANDOAIN 2021. Soziolinguistika Klusterra.

Aztertutako aldagai soziolinguistikoen bilakaeran azpimarra daitezkeen datuak honako hauek dira:

- **Euskara-gaitasunak** sei puntu egin du gora Astigarragan 1991tik 2016ra (% 58,5etik % 64,5 2016ra).
- **Lehen hizkuntzari** eta **etxeko hizkuntzari** dagokionean, aldiz, beheranzko joera bat baieztatzen da: 1991ean % 52,4koa zen lehen hizkuntzaren datua, eta % 35 2016an; etxeko erabilera % 41,9tik % 28,2ra igaro da urte horietan.
- **Kaleko euskararen erabilera** gorabeheratsuagoa izan da: 2001etik 2021era igoera txiki bat ikus daiteke (% 28,6 2001ean; % 31,8 2021ean), baina tarteko neurketetan jasotako datuak dezente altuagoak izan dira, eta 2016tik 2021era bitartean, besteak beste, 7 puntuko jaitziera jaso da (% 38,7 2016an; % 31,8 2021ean).


Laburbilduz, esan daiteke 20 urteko epean gorabehera handiak egon direla euskararen kaleko erabileran, balio antzekoetan geratu dela udalerrian bizi diren euskaldunen ehunekoa eta beheranzko joera antzeman dela lehen hizkuntzaren eta etxeko euskararen erabileraren balioetan.

5.4 BESTE EREMU GEOGRAFIKOETAKO ERABILERAK

5.4.1 Euskal Herria, herrialdea eta eskualdea

Ondorengo grafiko eta taulan, Euskal Herrian, Astigarragari dagokion gune soziolinguistikoan (3. gunea), Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan, Donostialdean eta Astigarragan jasotako datuak erakusten dira.

8. Grafikoa eta taula. ERABILERA, LAGINA ETA AKATS-TARTEA. HAINBAT EREMU GEOGRAFIKO, 2021. (%)




Eremua	Biztanleria	Lagina	Erabilera %	Akats-tartea %
Euskal Herria	3.136.258	603.497	12,6	0,3
3. Gune soziolinguistikoa²⁶	540.115	210.105	37,4	1,3
EAE	2.178.619	489.073	15,7	0,3
Gipuzkoa	713.902	249.711	30,6	0,7
Donostialdea	326.793	115.010	19,0	0,2
Astigarraga	6.949	4.172	31,8	1,4
Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.				

Goiko grafikoak eta taulak erakusten dutenez, Astigarragako euskararen erabilera (% 31,8) Gipuzkoako datuekin nahiko paretsu dago (% 30,6), 3. gune soziolinguistikoko batezbestekoa baino apur bat beherago (% 37,4), eta alderatzen diren beste eremuen gaineratik dago: Euskal Herrian % 12,6, Euskal Autonomia Erkidegokoan % 15,7, eta azkenik Donostialdean % 19.

²⁶ 3 gune soziolinguistikoan sailkatzen dira %50 - %80 Euskaldun dentsitatea duten udalerriak (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila 2020).

5.4.2 Eskualdeko beste zenbait udalerrirekin alderaketa

1. Mapa eta Taula. ESKUALDEKO ZENBAIT UDALERRITAKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA. DONOSTIALDEA, 2021 (%)



Udalerrria	Euskararen kale-erabilera (2021)	Gaitasuna (2016)	Biztanle-kopurua (2021)
Usurbil	62,8	72,5	6.102
Oartzun	53,3	76,3	10.226
Hernani	33,3	61,3	20.442
Astigarraga	31,8	64,7	6.949
Lezo	30,0	60,3	6.050
Urnieta	21,1	60,4	6.126
Andoain	20,0	56,3	14.780
Pasaia	19,1	43,2	16.505
Donostia	15,3	46,0	180.897
Errenteria	10,9	42,9	39.545
Lasarte-Oria	Daturik ez	45,4	19.294

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2021; EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitzen zentsua, 2016, 2021.

Euskal Herriko *Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketetako* datuen arabera, % 19koa izan da Donostialdeko eskualdean euskararen kale-erabilera (Altuna Zumeta eta Iñarra Arregi 2022). Aurreko mapan, eskualde horretako udalerrri desberdinetan egin diren *neurketetako* datuak bildu dira²⁷.

Ikus daitekeen bezala, Usurbilen behatu da euskararen erabilera handiena (% 62,8), eta, ondoren, Oiartzunen (% 53,3). % 30 inguruko erabilerak behatu dira Astigarragan (% 31,8), Hernanin (% 33,3) eta Lezon (% 30,0); eta % 20 ingurukoak Urnietan (% 21,1), Andoainen (% 20,0) eta Pasaian (% 19,1). Donostian, herrialdeko hiriburua izanik, % 15,3ko erabilera behatu da, eta, azkenik, Erreterian, % 10,9koa. Beraz, eskualdean erabilera-datu oso-oso desberdinak daudela agerian geratu da.


Eskualdearen euskararen erabilera Astigarragak duen pisua ulertzeko, taulan bertan udalerrri horietako euskararen erabilera, biztanleria-kopurua eta udalerrri horietako euskara-gaitasuna bildu dira.

Ikus daitekeen modura, Astigarraga eskualdeko biztanleria-kopuru txikienetakoen artean dago Urnieta, Lezo eta Usurbilekin batera (6.949 biztanle Astigarragak). Gaitasunaren aldetik, hirugarren herri euskaldunena da (% 64,7), Oiartzun eta Usurbilen ondok. eta, kaleko erabilerari dagokionez, laugarren daturik altuena du (% 31,8), Oiartzun, Usurbil eta Hernaniren ondoren.

²⁷ Donostialdeko eskualdean udalerrri guztietan egin da ikerketa 2021ean, Lasarte-Orian izan ezik.

5.4.3 Behatutako udalerrien kale-erabilera hizkuntza-gaitasunaren arabera

1. Irudia. HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE-NEURKETA EGINDAKO UDALERRIETAN EUSKARA-GAITASUNA ETA KALEKO ERABILERAREN ARTEKO ALDERAKETA. ASTIGARRAGA, 2021



Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa, 2021.

Goiko irudian 2021eko edizioan Soziolinguistika Klusterrak udalerritan berriaz egindako *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa* guztien euskararen erabilera-datua irudikatu da. Bertan, euskararen kale-erabilera eta udalerriko euskara-gaitasuna bi ardatzetan jarri dira harremanetan.

Ikus daitekeen bezala, lotura garbia dago bi aldagai horien artean, esan nahi baita zenbat eta euskara-gaitasun handiagoa izan, orduan eta euskararen kale-erabilera altuagoa nabari dela. Baina, era berean, ikus daiteke harreman hori ez dela erabat lineala, izan ere euskara-gaitasun berbera duten udalerrietan euskararen kale-erabileraren datuak oso desberdinak izan daitezke.


Behatu diren udalerririk kontuan izanda datuei erreparatuz gero, ikus daiteke Astigarragan, euskara-gaitasunari erreparatuz (% 64,7), euskararen kaleko erabileraren datua (% 31,8) joera-marraren azpitik dagoela.

6 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, UDALERRIKO IBILBIDEETAN

6.1 DATU OROKORRAK, IBILBIDEETAN (2021)

Herritarrek kalean zer hizkuntza darabilten aztertzea abiapuntu hartuta, herrian bitzta soziala agerikoen den eremuetan egiten da behaketa. Eremuak zein izango diren zehazteko, udalerriko harreman-gune nagusiak kokatzen jarduten da, eta behin eremuak definituta, udaleko teknikariek elkarlanean jarraitu beharreko ibilbideak zein izango diren erabakitzen da. Astigarragako kasuan, hiru ibilbide zehaztu dira, ikus jarraian erakusten diren grafiko eta taulak.

9. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA IBILBIDEAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Joseba Barandiaran plaza eta inguruak	Foru plaza eta inguruak	Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak
Euskaraz	38,6	28,0	27,4
Gaztelaniaz	61,2	69,9	71,7
Frantsesez	0,0	1,1	0,0
Beste hizkuntzetan	0,1	1,1	0,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	1.553	1.324	1.295

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.


Euskararen erabilerari dagokionez, emaitza altuenak Joseba Barandiaran plaza eta inguruetan jaso dira (% 38,6). Hamar puntu baxuagoa izan da Foru plaza eta inguruetan eta horren oso parekoa Kontxa Etxeberria plaza eta inguruetan behatu dena (% 28 eta % 27,4, hurrenez hurren).

6.2 BILAKAERA (2001 – 2021)

2021eko txostenean, Kontxa Etxeberria plaza eta inguruetakoko ibilbidea gehitu zaie beste bi ibilbideei, eta hortaz, ez dago gaur gaurkoz ibilbide berriaren bilakaeraren inguruko daturik.

2016tik 2021eko neurketetara bilakaera duten bi ibilbideetan euskararen erabilerak behera egin du. Joseba Barandiaran plaza eta inguruen kasuan, beherakada apala izan da (% 40,7 2016an eta % 38,6 2021ean), baina Foru plaza eta inguruetan beherakada ia hamar puntukoa izan da (% 36,7 2016an eta % 27,4 2021ean).

10. Grafikoa eta taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA IBILBIDEKA. ASTIGARRAGA, 2001-2021 (%)




	2001	2003	2006	2011	2016	2021
Foru plaza eta inguruak	52,7	53,7	53,2	29,5	36,7	28,0
<i>Lagina</i>	351	577	201	1.350	2.062	1.324
Joseba Barandiaran plaza eta inguruak	25,7	42,7	35,7	31,0	40,7	38,6
<i>Lagina</i>	1.347	560	1.072	1.842	2.069	1.553
Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak						27,4
<i>Lagina</i>						1.295
Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.						

7 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERA

7.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA (2021)

Jarraian, Astigarragako kaleetan euskararen erabileraren berri ematen da sexu aldagaia kontuan hartuta. Grafikoan eta taulan ikus daitekeenez, emakumezkoen euskarazko erabilera gizonezkoena baino zertxobait altuagoa da (% 34,6 emakumezkoen kasuan, eta % 28,7 gizonezkoen kasuan).

11. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA SEXUAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	34,6	28,7
Gaztelaniaz	64,8	69,9
Frantsesez	0,3	0,4
Beste hizkuntzetan	0,4	1,0
GUZTIRA	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	<i>2.191</i>	<i>1.981</i>

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Bi taldeen artean alde txiki hori behatzea oso ohikoa da Euskal Herriko kaleetan, alegia, emakumezkoek euskaraz gehiago hitz egitea gizonezkoek baino. 2021eko neurketan ere joera bera berretsi dute: emakumezkoen euskararen erabilera


zertxobait handiagoa dela adin-tarte guztietan, adineko pertsonen artean izan ezik (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022); fenomeno orokortua Altuna eta Hernándezek aztertu duten bezala (Altuna Ramírez eta Hernández García 2018, 139).

Egile horiek aipatzen dutenez, "datu horien interpretaziorako azalpen serio eta borobil bat ematea zaila izan arren", iradoki daiteke "euskara gizarteak inposatzen dituen generoen arteko tentsioaren erdigunean agertzen dela", eta "genero sistemak garai eta gune zehatz batzuetan euskara eta emakumeen arteko lotura ezarri du[ela]". Hala, ondoriozta daiteke "modu sinbolikoan zein praktikokoan euskararen *feminizazioa* gertatu d[ela], nahiz eta kontrakoa ere gertatu daitekeen" (Altuna Ramírez eta Hernández García 2018, 139). Euskararen erabilerak genero-rolkin duen harremana euskal soziolinguistikan gehiago sakondu beharreko gaia da. Esan bezala, joera horien isla baieztatu ahal izan da Astigarragako kalean egindako *hizkuntzen erabileraren neurketan*.

7.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (2006 – 2021)

Bilakaerari dagokionez, azken 2 neurketetan aldaketa sumatu da sexuaren arabera euskararen erabileran. Alde txikiz bada ere, 2006 eta 2011ko neurketetan gizonezkoetan jasotako euskararen erabileraren datuak emakumezkoak baino zertxobait altuagoak izan ziren. 2016an, aldaketa nabarmena jaso zen, emakumezkoen datuak 8 puntu gorago kokatu baitziren gizonezkoenak baino. Azken neurketa honetan, joera horri eutsi zaio, eta emakumezkoak 6 puntu gorago kokatu dira gizonezkoekin alderatuta (% 34,6 emakumezkoen kasuan, eta % 28,7 gizonezkoenak).

12. Grafikoa eta taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. ASTIGARRAGA (%)



	2006	2011	2016	2021
Emakumezkoak	34,4	29,1	42,8	34,6
<i>Lagina</i>	1.008	1.575	2.117	2.191
Gizonezkoak	38,0	31,5	34,4	28,7
<i>Lagina</i>	793	1.617	2.014	1.981


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2006, 2011, 2016 eta 2021.

7.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA (2021)

2021eko ikerketan, adinaren araberako datuen azterketan aldaketa metodologiko garrantziko bat gertatu da. Aurreko edizio guztietan, datu-bilketan zein azterketan honako lau adin-talde hauetan banatu da biztanleria: haurrak (14 urte artekoak), gazteak (15-24 bitartekoak), helduak (25-64 bitartekoak) eta adinekoak (65 baino gehiago dituztenak). Bistan da banaketa horretan helduen taldeak biztanleriaren zatirik handiena hartzen duela, eta ezaugarri oso heterogeneoak dituzten azpitaldeak osatzen dutela. Hori horrela, 2021eko ikerketan, helduen taldea bi taldetan banatzea erabaki da, hain zuzen, honako hauetan: 25-44 urte arteko heldu gazteak eta 45-64 urte arteko heldu nagusiak.

Behin datuak aztertuz gero, Astigarragan jasotako emaitzak 13. Grafiko eta taulan bildu dira:

13. Grafikoa eta taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA ADINAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (>64 urte)
Euskaraz	40,3	40,8	36,2	17,6	21,5
Gaztelaniaz	59,1	59,2	61,7	81,6	78,5
Frantsesez	0,2	0,0	0,6	0,4	0,0
Beste hizkuntzetan	0,5	0,0	1,5	0,4	0,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagina	1.104	321	1.344	1.007	396

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Ikus daitekeen bezala, alde nabarmenak ageri dira adin-tarteen artean:

- **Euskararen erabilera altuena haur eta gazteetan jaso da** (% 40,3 eta % 40,8, hurrenez hurren).
- **Heldu gazteen adin-taldean** pixka bat baxuagoa izanik ere, **batezbestekotik gorago** dago(% 36,2).
- **Erabilera-datu baxuena heldu nagusietan** jaso da (% 17,6), eta zertxobait altuagoa adinekoetan (% 21,5).


Emaitzak bat datoz, hein batean, herri euskaldun gehienetan antzeman den joerarekin, alegia, haurrak eta gazteak batezbestekoaren gaintik eta helduak behetik (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022). Nolanahi ere, interesgarria da ikustea helduen arteko bi taldeen banaketak emaitza argigarriak eman dituela, hots, heldu gazteen euskararen erabilera gazteenari hurbiltzen dela ikustea, eta heldu nagusien erabilera gehiago hurbiltzen dela adinekoen erabilerara.

Laburbilduz, adinaren araberako euskararen erabilerari erreparatuta, esan daiteke erabilera altuenak talde gazteenetan izatea, hots, haur eta gazteen artean,-herri euskaldunetan ohikoa den moduan, Astigarragako euskararen berreskuratze bidean, emaitza mesedegarria dela (Sorolla Vidal, Altuna Zumeta, eta Larrea Mendizabal 2019, 38).

7.4 EUSKARAREN KALE-ERABILERA ETA EUSKARA GAITASUNA, ADINAREN ARABERA

Ondorengo grafiko eta taulan, euskara gaitasuna eta kale-erabilera erakusten dira adin-tarteetan banatuta.

14. Grafikoa eta taula. EUSKARA-GAITASUNA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2016-2021 (%)



	Haurrak (2-14 urte)		Gazteak (15-24 urte)		Helduak (25-64 urte)		Adinekoak (>64 urte)	
	Gaitasuna	Erabilera	Gaitasuna	Erabilera	Gaitasuna	Erabilera	Gaitasuna	Erabilera
Euskaldunak / Euskara	92,8	0,0	89,2	0,0	55,7	0,0	57,2	0,0
Ia euskaldunak	6,9	-	5,9	-	20,7	-	9,3	-
Erdaldunak / Erdara	0,3	100,0	4,9	100,0	23,6	100,0	33,5	100,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
GUZTIRA, Abs.	1.018	0	407	0	3.707	0	657	0

Iturria. EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren zentsua, 2016; Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Grafikoak modu argian erakusten du gaitasunak lotura duela erabilerarekin, gaitasun altueneko taldeetan topatzen baitira euskararen erabilera-datu altuenak Astigarragan.


EUSTATen datuen arabera, haurrak dira gaitasun handiena dutenak (% 92,8); gertutik doakie gazteak (% 89,2), eta nabarmen baxuagoa helduen (% 55,7) eta adinekoen (% 57,2) euskara-gaitasuna. Aipatzekoa da helduen adin-tartean ia euskaldunak direnen ehunekoa (% 20,7) bereziki handia dela beste adin-tarteekin alderatuta. Bi adin-talde horietan, hain zuzen, euskararen erabilerak bereziki egiten du behera, gaitasunaren datuaren jaistearekin bat eginez.

7.5 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA (2001 – 2021)

Kale erabileraren bilakaera, 5.2 atalean erakutsi den moduan, gorabeheratsua izan da Astigarragan, azken bi hamarkadetan. 2016an gorakada sumatu zen 2011rekin alderatuta, (% 30,4tik % 38,7ra), eta 2021ean beherakada egon da 2016ko datuekin alderatuta (% 38,7tik % 31,8ra).

2016tik 2021era aztertuz, bilakaera desberdinak ikus daitezke adin-taldeen arabera: datu baxuagoak behatu dira 2021ean haurren, helduen eta adinekoen artean. Garrantzizkoa da haurren kasuari erreparatzea, izan ere horien arteko inoizko daturik baxuena jaso da (% 40,32). Aldiz, gorako bilakaera neurtu da gazteen kasuan (2016ko % 33,8tik 2021eko % 40,8ra), hain zuzen, haurren erabilerarekin parekatuz.

15. Grafikoa eta taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADINAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2001-2021 (%)



Adin-taldea	2001	2003	2006	2011	2016	2021
Haurrak (2-14 urte)	49,4	59,8	56,7	45,1	53,5	40,3
<i>Lagina</i>	625	640	540	935	1.128	1.104
Gazteak (15-24 urte)	13,3	34,0	33,1	46,8	31,4	40,8
<i>Lagina</i>	300	262	127	237	472	321
Helduak (25-64 urte)	19,7	34,5	28,6	22,5	33,8	28,2
<i>Lagina</i>	1.120	718	824	1.585	1.988	2.351
Adinekoak (>64 urte)	39,2	51,8	21,6	18,2	32,6	21,5
<i>Lagina</i>	130	110	319	435	543	396

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2001, 2003, 2006, 2011, 2016 eta 2021.


Bilakaera luzeagoari erreparatuz gero (2001-2021), goranzko erabilera-datuak behat dira: gazteen kasuan (% 13,3tik % 40,8ra), helduen kasuan (% 19,7tik % 28,2ra). Aldiz, erabilerak jaitsi dira adinekoen kasuan (% 39,2tik % 21,5era) eta haurrenean (% 49,4tik % 40,3ra).

8 HIZKUNTZEN KALE ERABILERA, SOLAS- TALDEAREN OSAERAREN ARABERA

8.1 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN (2021)

Berdin egiten al du jendeak euskaraz adin-tarte guztietako solaskideekin? Alderik ba al da haur eta nagusien artean, nahasita edo bananduta egonez gero? Ondorengo grafiko eta taulatan bi faktore horiek landu eta erakusten dira.

16. Grafikoa eta taula. ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEKO KALE ERABILERA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Haurren artean	Gazteen artean	Heldu gazteen artean	Heldu nagusien artean	Adinekoen artean
Euskaraz	30,3	41,8	33,2	14,0	17,4
Gaztelaniaz	69,7	58,2	64,5	85,3	82,6
Frantsesez	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0
Beste hizkuntzetan	0,0	0,0	2,0	0,7	0,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Lagina	327	239	608	573	207


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Aurreko grafiko eta taulan, adin-talde berekoen arteko solasaldietan zer hizkuntza erabiltzen den erakusten da. Bertan ikus daitekeenez, bada adinaren arabera datu orokorrekin aldentzen den bat, alegia, gazteak dira euskaraz gehien hitz egiten

дутенак, euren adineko taldeetan daudenean (% 41,8). Azpimarratzekoa da, era berean, heldu gazteek, euren artean daudenean, haurren taldekoek baino gehiago erabiltzea euskara (% 33,2 eta % 30,3, hurrenez hurren). Aldiz, ohikoagoa da, heldu nagusi zein adinekoen artean erabilera baxuagoa izatea (% 14 heldu nagusien artean, eta % 17,4 adinekoen artean).

Interesgarria da, nolana ere, erabilera orokorrarekin alderatzea. Alegia, elkarriketetan adin berekoak ari direnean, edo adinez talde nahasietan ari direnean zer gertatzen den alderatzea.

17. Grafikoa eta taula. EUSKARAREN KALE ERABILERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN ETA GUZTIRA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Haurrak (2-14 urte)	Gazteak (15-24 urte)	Heldu gazteak (25-44 urte)	Heldu nagusiak (45-64 urte)	Adinekoak (>64 urte)
Adin berekoekin	30,3	41,8	33,2	14,0	17,4
<i>Lagina</i>	327	239	608	573	207
Guztira	40,3	40,8	36,2	17,6	21,5
<i>Lagina</i>	1.104	321	1.344	1.007	396

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.


Aurreko grafiko eta taulan ikus daitekeenez, Astigarragan, erabilera orokorrarekin alderatuta, adin-tarte guztietan da handiagoa erabilera adin desberdinetako lagunez osatutako taldeetan, gazteen artean izan ezik. Gazteen joera nabarmentzekoa da, izan ere, Euskal Herriko datu orokorrak aztertuz ikusi da adinkideen arteko elkarriketetan euskara gutxiago egiten dela talde nahasietan; eta hori adin-talde guztietan gertatzen da (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

Aipagarria da, dena den, haurrengan arau hori besteengan baino indar gehiagorekin betetzen dela. Izan ere, euskararen erabilera 10 igotzen da gainerako adineko lagunekin, eurak bakarrik daudenean baino. Beraz, esan daiteke, kasu honetan helduen eragina handi xamarra dela haurrengan, edo, bestela esanda, haurrek haien artean gaztelaniara gehiago jotzeko joera dutela.

8.2 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, ADIN-TALDE BEREKOAK ELKARTZEAN (2006 – 2021)

Jarraian, kale-erabileraren bilakaera aztertzen da, adin-talde berekoak elkartzen direnean.

18. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA ADIN-TALDE BEREKOEN ARTEAN. ASTIGARRAGA, 2006-2021 (%)



%	2006	2011	2016	2021
Haurren artean	67,9	47,0	52,4	30,3
<i>Lagina</i>	81	368	450	327
Gazteen artean	29,1	50,0	30,3	41,8
<i>Lagina</i>	103	192	366	239
Helduen artean	14,1	13,3	27,5	23,0
<i>Lagina</i>	347	893	1.155	1.369
Adinekoen artean	15,7	18,0	30,9	17,4
<i>Lagina</i>	191	211	343	207

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2006, 2011, 2016 eta 2021.

Goiko grafiko eta taulan, ikus daiteke gazteen artean gora egin duela euskararen erabilerak azken bost urteotan, baina behera egin duela haurren, helduen eta adinekoen artean. Bereziki aipagarria da haurren kasua, azken bost urteetan hogeitau puntu baino gehiago egin baitu behera euskararen erabilerak euren artean daudenean (% 52,4tik % 30,3ra).


Azken hamabost urteko bilakaerari dagokionez, batetik, argi islatzen da haurren artean jaso den beherakada nabarmena (2006an % 67,9tik % 30,3ra 2021ean). Beherakada kezagarria da, euskararen erabileraren datuak erdira jaitsi baitira azken hamabost urteetan.

Gainerako adin-taldeetan gorakada behatu da. Nabarmena izan da, gazteen arteko erabileraren gorakada, azken hamabost urteetan hamaika puntu igo baita (2006an % 29,1etik, % 41,8ra 2021ean).

8.3 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA (2021)

Jarraian, haurren presentziak euskara erabileran duen eragina erakusten da.

19. Grafikoa eta Taula. HIZKUNTZEN KALE ERABILERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Haurren artean	Nagusien artean	Haurrak eta nagusiak nahastuta
Euskaraz	30,3	24,8	41,2
Gaztelaniaz	69,7	74,1	57,6
Frantsesez	0,0	0,3	0,4
Beste hizkuntzetan	0,0	0,7	0,8
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0
<i>Lagina</i>	327	2.185	1.660


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Aurreko grafiko eta taulan ikus daiteke haurren presentziak eragin zuzena duela euskararen erabileran. Nagusiak bakarrik daudenean % 24,8koa da euskararen erabilera. Aldiz, haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean euskararen erabilera % 41,2ra igotzen da; haurrek euren artean hitz egiten dutenean % 30,3koa da euskararen erabilera.

Aipatu behar da, bestalde, Astigarragan bildutako datu horiek bat egiten dutela erabat Euskal Herriko joera orokorrek. Izan ere, lurralde osoa kontuan hartuta, euskararen erabilera-daturik altuenak haurrak eta nagusiak daudenean jasotzen dira eta baxuenak haurrik ez dagoen elkarrizketetan (Altuna Zumeta, Iñarra Arregi, eta Basurto Arruti 2022).

8.4 EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA, HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA (2006 – 2021)

20. Grafikoa eta Taula. EUSKARAREN KALE ERABILERAREN BILAKAERA HAURREN PRESENTZIAREN ARABERA. ASTIGARRAGA, 2006-2021 (%)



	2006	2011	2016	2021
Haurren artean	67,9	47,0	52,4	30,3
<i>Lagina</i>	81	368	450	327
Nagusien artean	18,7	18,6	28,2	24,8
<i>Lagina</i>	786	1.602	2.271	2.185
Haurrak eta nagusiak nahastuta	47,8	40,8	51,2	41,2
<i>Lagina</i>	934	1.222	1.410	1.660

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2006, 2011, 2016 eta 2021.

2016tik 2021era hiru taldeetan behatu da euskararen erabileraren beherakako bilakaera: haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean 10 puntukoa izan da jaitsiera (% 51,2tik % 41,2ra), 20 puntukoa haurren artekotan (% 52,4tik % 30,3ra), eta 4 puntukoa nagusien artean (% 28,2tik % 24,8ra).


!5 urteko bilakaerari erreparatuz ere, bilakaera negatiboa da haurren artean, eta haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean. Aldiz nagusien artean egiten den euskararen erabilerak zertxobait egin du gora (% 18,7tik % 24,8ra).

Hori horrela, kezkarriak dira 2021eko neurketetan jasotako datuak haurrei dagokienez, inoizko baxuenak baitira, eta 2016tik hona erdira jaitsi baita.

8.5 HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN ARI DEN (2021)

Atal honetan, hurrez eta nagusiez osatutako elkarrizketak soilik hartuko dira kontuan. Ondorengo taulan hitz egiten ari dena haurra ala nagusia izateak duen eragina erakusten da.

21. Grafikoa eta Taula. HAUR-NAGUSI TALDEETAKO KALE ERABILERA, HAURRA ALA NAGUSIA HITZ EGITEN. ASTIGARRAGA, 2021 (%)



	Haurra hizlari	Nagusia hizlari
Euskaraz	47,0	35,8
Gaztelaniaz	52,6	62,3
Frantsesez	0,0	0,8
Beste hizkuntzetan	0,5	1,1
GUZTIRA	100,0	100,0
Lagina	805	855

Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, ASTIGARRAGA 2021.

Aurreko grafiko eta taulan ikus daitekeenez, haur eta nagusien arteko solasaldietan, haurra hitz egiten ari denean erabilera % 47koa da, eta nagusia bada, aldiz, % 35,8koa. Beraz, grafiko eta taula horretan berresten da haurrek euskaraz hitz egiteko joera handiagoa dutela Astigarragan nagusiek baino.

9 ONDORIOAK

Astigarragan 2021ean eginiko *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketak* erakutsi du herriko kaleetan 10 lagunetik hiru ari zela euskarazko elkarrizketetan (% 31,8), bi heren gaztelaniaz (% 67,2) eta % 1 inguru beste hizkuntzetan.

- Astigarragan, euskararen erabilerak zazpi puntu egin du behera azken bost urteetan. Garrantzizkoa da hori, izan ere, aurreko bosturtekoan gertaturiko igoerari itzulia eman eta duela 10 urte behatu zen erabilera-datu ia bera jaso da neurketa honetan. Bilakaera luzeagoa aztertuz gero, Astigarragako kale-erabileran gorabeherak nabarmentzen dira. Horien ondorioz, hogeitaz urteko tartean euskararen kaleko erabilerak hiru puntu egin du gora.
- Astigarragako udalerriri dagokionean, ibilbideetan gertatzen denari erreparatuz, Joseba Barandiaran plaza eta inguruetan dago euskararen kale-erabilera handiena; baxuagoa da euskararen erabilera Foru plaza eta inguruetan, eta Kontxa Etxeberria plaza eta inguruetan. Aipagarria da behar bada bilakaera duten bi ibilbideetan islatu izana, alegia, Foru plaza eta inguruetan, eta Joseba Barandiaran plaza eta inguruetan.
- Emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonezkoek baino Astigarragan. Joera hori, oro har, Euskal Herriko lurralde guztietan errepikatzen den fenomeno da, adin-talde guztietan adinekoetan izan ezik. Badirudi, emakumeek eta gizonek euskararekiko izan ditzaketan irudi zein balio desberdinek hizkuntza-hautuan eragiten dutela. Etorkizuneko aztergai interesgarria da honakoa, zalantzarik gabe.
- Adin-tarte gazteenetan handiagoa da euskararen erabilera, Astigarragan ere. Haurren, gazteen eta heldu gazteen erabilerak batezbestekoaren gainetik kokatzen dira, eta neurri handi batean, euskararen erabileraren sendotzea eragiten dute.
- Garrantzizkoa da haurren kasuari erreparatzea, izan ere, horien arteko inoizko daturik baxuena jaso da. Aldiz, gorako bilakaera neurtu da gazteen kasuan, hain zuzen, haurren erabilerarekin parekatuz. Nolanahi ere, ez da ahaztu behar, Astigarragan ere, asko direla eskolaren bitartez euskaldundu diren haur eta gazteak. Eta, baita migrazioaren ondorioz udalerrira etorri diren herrikideak ere. Horien guztien euskararenganako jarrera eta hautua, oso kontuan hartzekoa izango da datozen urteetako euskararen bilakaeran.
- Adin berekoen arteko elkarrizketetan azaleratu da, bestalde, orain artean agerian ez zegoen informazio interesgarria. Izan ere, gazteek antzera egiten dute euskaraz euren artean daudenean adin desberdinetako biztanleekin osatutako taldeetan daudenean baino. Beste adin-taldeetan, aldiz, igo egiten da euskararen erabilera beste adinekoekin daudenean, kasu honetan, bereziki handia haurren artean.
- Fenomeno horrekin lotzen da haurren presentziak duen eragina euskararen erabileran. Euskal Herriko kaleetan pertsona nagusiak euskaraz gehiago aritzen dira haurrak hurbil daudenean, eurak bakarrik daudenean baino. Joera hori orokorra da, eta Astigarragan ere araua hala betetzen da. Badirudi pertsona nagusiek euren harreman horizontaletan gaztelaniarako joera sendoagoa dutela eta hurrekin daudenean errazago baztertzen dutela aukera

hori: nagusien arteko taldeetan entzuten da gutxien euskaraz, eta hurrekin daudenean, aldiz, nabarmen igotzen da euskararen erabilera.

- Datozen urteetako bilakaerari begiratzekoan, garrantzitsua izango da haurren eta gazteen joerei erreparatzea. Astigarragan, datu kezkarriak agertu direla esan daiteke, erabilera-datuek behera egiteaz gain, joera beherakorra baitu haurren euskararen kale-erabilerak. Dena den, gogoan izan behar da egungo euskal hiztunen profil linguistikoa desberdina dela garai bateko euskaldunen artean ohikoen zen profiletik. Horregatik, kanpo-eraginak tarteko direla ere, zaindu beharrekoak dira haur eta gazte horien hizkuntza-erraztasuna, euskaraz modu lasaian aritzeko aukerak eta euskarazko sozializazioa. Herritar guztiek dute zeregina eginkizun horretan. Euskararen biziberritzearena, ilusioz, erabakimenez, enpatiaz eta inteligentziaz gauzatu beharreko prozesu berritzaile eta eraldatzailea da, bizikidetzaz zainduz eta gizarte hobe bat eraikitzeko bidean.

10 DATU NAGUSIEN LABURPENA

ASTIGARRAGA, 2021 Hizkuntzen erabileraren kale neurketa Datu nagusien laburpena

Datu orokorrak	Euskaraz	% 31,8
	Gaztelaniaz	% 67,2
	Frantsesez	% 0,3
	Beste hizkuntzetan	% 0,7
	Euskararen erabileraren bilakaera (2016-2021)	-6,9
	Euskararen erabileraren bilakaera (2001-2021)	+3,2
ibilbideak	1. Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak	% 27,4
	2. Joseba Barandiaran plaza eta inguruak	% 38,6
	3. Foru plaza eta inguruak	% 38,6
Sexua	Emakumezkoek	% 34,6
	Gizonezkoek	% 28,7
Adina	Hurrek	% 40,3
	Gazteek	% 40,8
	Helduek	% 28,2
	Heldu gazteek	% 36,2
	Heldu nagusiek	% 17,6
	Adinekoek	% 21,5
	Haurren artean	% 30,3
	Gazteen artean	% 41,8
	Helduen artean	% 23,0
	Heldu gazteen artean	% 33,2
	Heldu nagusien artean	% 14,0
	Adinekoen artean	% 17,4
Haurren presentzia	Haurrak bakarrik (nagusirik gabe) daudenean	% 30,3
	Nagusiak bakarrik (haurrik gabe) daudenean	% 24,8
	Hurrek eta nagusiek osatutako taldeetan	% 41,2
	Hurrek hitz egiten dutenean	% 47,0
	Nagusiek hitz egiten dutenean	% 35,8

BIBLIOGRAFIA

- Aierdi, Xabier, Belen Uranga, eta Maialen Iñarra. 2021. «Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza -aniztasunaren mapa. Immigrazioko biztanleriaren jatorriaren araberrako hurbilketa». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 119: 11–38.
- Aizpurua Espin, Jon. 2018. «Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 29–45.
- Altuna, Olatz, eta Asier Basurto. 2013. *Hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Altuna Ramírez, Jaime, eta Jone M. Hernández García. 2018. «%2,7a Euskara, generoaz mintzo?» *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 106: 115–44.
- Altuna Zumeta, Olatz, eta Maialen Iñarra Arregi. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021. Txosten teknikoa*. Soziolinguistika Klusterra.
- Altuna Zumeta, Olatz, Maialen Iñarra Arregi, eta Asier Basurto Arruti. 2022. *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2021*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.
- Alvarez Enparantza, Txillardeggi, J. L. 2001. *Hacia una Sociolingüística Matemática*. SEI.
- Amorrortu, Estibaliz, Jone Goirigolzarri, eta Ane Ortega. 2021. «Ekintza-ikerketan partehartzailea euskararen hiztun aktibo bihurtzeko babesgune eta zubi-espazio». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 120: 11–26.
- Calvet, Louis-Jean. 2017. *Les langues: quel avenir? Les effets linguistiques de la mondialisation*. CNRS.
- Crystal, David. 2003. *English as a Global Language*. 2nd ed. Cambridge: Cambridge University Press. <https://www.cambridge.org/core/books/english-as-a-global-language/690D300092A3B5E4733677FCC9A42E98>.
- Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. 2020. *VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Euskararen Erakunde publikoa. 2017. «VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoko fitxa teknikoa». https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557.
- Gaindegia. 2021. «20 Adierazle galeria nagusi. Euskal Herria». https://gaindegia.eus/sites/default/files/AGN-euskal-herria-2021_8.pdf.
- Giles, H, R.Y. Bourhis, Taylor, D.M., eta Relations». 1977. «"Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations"». *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348).
- Iriberrri, Nagore, eta José Ramón Uriarte. 2012. «Gutxiengoaren hizkuntza eta elebitasunaren orekaren egonkortasuna». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 84: 185–206.
- Isasi, X., eta A. Iriarte. 1998. «"Euskararen kale-erabilera. Txillardegiren eredu matematikoa", BAT Soziolinguistika aldizkaria 28, 51-80 orr». *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 28: 51–80.
- Larrañaga, Iñaki. 1986. «Euskararen erabilpen erreala Gipuzkoan: leku publikoetan, udal erakundeetan, gizarteko zerbitzuetan». In *Hizkuntza minorizatuen soziologia, -(e)k argitaratua* J. Ruiz Olabuenaga eta J.A. Ozamiz. Donostia: Tartalo argitaletxea.
- Lo Bianco, Joseph. 2014. «Domesticating the Foreign: Globalization's Effects on the Place/s of Languages.» *The Modern Language Journal* 98 (1): 3121–3325.

- Moseley, Christopher. 2010. *Atlas of the World's Languages in Danger*. 3. arg. Paris: Unesco Publishing.
- Ramallo, Fernando. 2020. «Neofalantismo y el sujeto neohablante». In *Claves para entender el multilingüismo contemporáneo.*, -(e)k argitaratua Luisa Martín Rojo eta Joan Pujolar, UOC y Universidad de Zaragoza, 229–65. Zaragoza.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio, eta Cristina Blanco. 1994. *La inmigración vasca. Análisis trigeracional de 150 años de inmigración*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Sorolla Vidal, Natxo, Olatz Altuna Zumeta, eta Imanol Larrea Mendizabal. 2019. *Euskararen erabilerarekin lotura duten faktoreak*. Soziolinguistika Klusterra.
- Uranga, Belen, eta Xabier Aierdi. 2021. «Gipuzkoako hizkuntza aniztasuna. Jatorri atzeritarreko biztanleen hizkuntza-bizipenak, jarrerak eta asmoak». Soziolinguistika Klusterra, Gipuzkoako Foru Aldundia (Argitaratu gabe).
- Vila i Moreno, F. Xavier. 2021. «Hizkuntza gutxituak: ezagutzaren eta erabileraren sustatzearen arteko lotura». *Administrazioa euskaraz* 111: 26–27.
- Yurramendi, Y., eta O. Altuna. 2009. «Zuzeneko behaketaz hizkuntza erabilera neurtzeko metodologiaren eredu matematikoa». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/zuzeneko-behaketaz-hizkuntza-erabilera-neurtzeko-metodologiaren-eredu-matematikoa/>.
- Yurramendi, Y., O. Altuna, X. Isasi, eta A. Basurto. 2013. «Ahozko hizkuntza erabilera behaketa bidez neurtzeko metodologiaren garapena». Andoain: Soziolinguistika Klusterra. <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/ahozko-hizkuntza-erabilera-behaketa-bidez-neurtzeko-metodologiaren-garapena/>.
- Zarraga Azumendi, Arkaitz. 2010. «Soziolinguistikari sarrera». In *Soziolinguistika Eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika Klusterra; Eusko Jaurlarita, Kultura Saila.

Udalerria: *ASTIGARRAGA*

Ibilbidea: *Foru plaza eta inguruak*

Kalez kale:

Kale Nagusia (40. zenbakia), Foru plaza, Santio zeharbidea, Kale Nagusia, Tranbia ibilbidea.

Planoa:



Udalerria: *ASTIGARRAGA*

Ibilbidea: *Kontxa Etxeberria plaza eta inguruak*

Kalez kale:

Tranbia ibilbide, Kontxa Etxeberria plaza, Erribera plaza, Aiotzategi kalea eta Izaskun kalea. Erribera kulturegunea eta Musika Eskolaren ingurua.

Planoa:

